



GALESEKO UNIBERTSITATEETAN GALESERA SUSTATZEAREN POZAK ETA FRUSTRAZIOAK

Colin H Williams

Galesera Eskola

Cardiff-eko Unibertsitatea, EB

Helbide elektronikoa: williamsch@cardiff.ac.uk

SARRERA

Hizkuntza-politika eta -plangintza formalak funtsezko papera bete du galeseraren sustapenean, berandu izan bada ere. Unibertsitate-mailako galesera-eskaintzaren inguruan sortu berri diren eztabaidak eta ekimenak aztertuko ditut idazlan honetan. Eztabaida horren helburua izan da pentsaera eta politika-aukerak aldatzea bost esparrutan. Honako hauek dira bost esparru horiek:

- Eremu urriko hizkuntzen eskaintzari buruzko diskurtsoa, bai derrigorrezko hezkuntzaren sektoreari dagokionez, bai eta derrigorrezkoa ez den hezkuntzaren sektoreari dagokionez ere. Horien artean, unibertsitate-mailako eskaintzak izan behar luke ospe handiena hezkuntza-sistema nazional guztietan.
- Egungo galesera-eskaintzaren eraginkortasun-maila, egungo ikasle-en, langile potentzialen eta gizarte zibil osoaren interesei dagokienez.
- Hizkuntza-egitasmoak ezartzea unibertsitate-sektorean.
- “Coleg Ffederal Gymraeg” sortzeko eskaerak; goi-mailako hezkuntza-sistemako elementu erdiautonomoa, galesera bitarteko izango duena.

e) Berdintasun-politika orokorraren baitan galeserari buruzko legeak eta klausulak sortzearen ondorioak, Galeseko Biltzar Nazionalak botere legegile osoa eskuratu baitu galeserari dagokionez.

GUTXIENGOAREN HEZKUNTZARI BURUZKO DISKURTSOA

Egungo diskurtoaren arabera, galesera hedatu behar da derrigorrezko hezkuntzaren sisteman, eta hezkuntza elebidunak onura ekarriko dio gizarteari; horren ezaugarritzat jotzen dira baliabideei, gaitasunak areagotzeari eta kudeaketari buruzko eztabaidak. 60ko hamarkadatik 90ekora arte, ahalegin handiak egin ziren galeserazko lehen eta bigarren hezkuntzako sektore bideragarri bat bermatzeko; gaur egun, berriz, goi-mailako hezkuntzaren sektorean jarri dugu arreta. Arrazoiak bistakoak dira; lehenengo hezkuntzatik bigarrenera pasatzean, eta ondoren goi-mailako hezkuntzara, ez dago jarraitutasunik mailen artean, ez kopuruari ez baliabideei dagokienez. 1999an, lehen hezkuntzako ikasleen %19,6k ikasi zuen eskoletan, galesera erabili zen gelan irakaskuntza-hizkuntza bakar, nagusi edo partzial gisa; bigarren hezkuntzan galeseraz ikasten zuten ikasleei zegokienez, berriz, %13,7ra jaitsi zen tasa hori; eta unibertsitate-mailan galeserazko ikastaroak jasotzen zituzten ikasleei zegokienez, nabarmen egin zuen behera tasa horrek, hain zuzen ere, %1,6ra arte. Baker-ek eta Jones-ek (2000) hezkuntza elebidunaren egoera aztertu zuten. Horien arabera, hezkuntza elebidunaren helburuak eta ikuspegia ez zeuden behar bezala zehaztuta, eta suspertze-estrategia bat diseinatu zuten; horrek oinarri koherenteak ezarri zituen hezkuntzaz jabetzeko plangintzarako eta curriculumaren diseinurako.

Suspertze-estrategia horrek oinarritzat hartzen zituen Galeseko Biltzar Nazional sortu berriak politikaren eta hezkuntzaren alorrean zehaztutako lehentasunak. Beraz, nazio-mailako botereari esker, politika berriak landu ahal izan ziren, gizarte desberdin baten beharrei erantzuten zietenak. Deszentralizazioaren ondoren, unibertsitate-mailako hezkuntza-eskaintzaz arduratu ziren Galeseko Biltzar Nazionala eta Galeseko Goi Mailako Hezkuntzaren Finantziatorako Kontseilua (HEFCW). Pentsatzekoa denez, estatu-mailako xede handien eta mugen mende dago erakunde horien jarduteko askatasuna, bai eta mundu-mailako jarraibideen mende ere. Edonola ere, tokiko politika desberdinak sor ditzakegula sentitzen dugu, ondorio iraunkorrak eragin ditzaketenak aztertzen ari garen politika-arloaren kalitatean eta norabidean. Hori dela eta, batzuetan, Galeseko edo Eskoziako lehentasun nazionalak kontraesanean egon daitezke EBko joera zabalekin. Hala gertatzen da, adibidez, 2006-07 ikasturteaz geroztik unibertsitateetako ikasleek ordaindu behar dituzten kuota berriekin (*top-up fees*), edo unibertsitateek lan-merkatuko galeseraren edo eskoziararen prestakuntza-behar jakinei erantzuteko edo jakintza trukatzeko ekimenak gauzatzeko eskaerarekin.

60ko hamarkadatik 90ekora arte, ahalegin handiak egin ziren galeserazko lehen eta bigarren hezkuntzako sektore bideragarri bat bermatzeko; gaur egun, berriz, goi-mailako hezkuntzaren sektorean jarri dugu arreta.

1950eko hamarkadako azken urteez geroztik, sistema federalean galeserazko unibertsitate-eskola bat jartzeko eskaria zabaldu zen. Eskaera horri erantzuteko, Aberystwyth eta Bangor unibertsitate-eskolak aukeratu zituzten galeseraz irakatsitako ikastaroak emateko hainbat irakasgaitan.

TESTUINGURU ETA IKUSPEGI HISTORIKOA

Galeseko Unibertsitatea (1893an sortua) hezkuntza-sistema nazionala zen, eta zazpi unibertsitate-eskolaz osatuta zegoen. 1950eko hamarkadako azken urteez geroztik, sistema federalean galeserazko unibertsitate-eskola bat jartzeko eskaria zabaldu zen. Eskaera horri erantzuteko, Aberystwyth eta Bangor unibertsitate-eskolak aukeratu zituzten galeseraz irakatsitako ikastaroak emateko hainbat irakasgaitan, eta nolabaiteko finantziazioa eman zitzaizen horretarako. 60ko hamarkadaren amaiera aldera, zirudienez, zentzuzkoa zen baliabideak biltzea, eta igurikimenak zazpi unibertsitate-eskoletako bitara mugatzea. Ondorioz, eskaintza hori baliatu zuten beren ikasketa osoa, edo horren zati bat, galeseraz gauzatu nahi zuten ikasleek. Hala eta guztiz ere, hasierako erabaki hori eta ondorengo jarduera zalantzan jarri dute askotan iruzkingileek, txosten ofizialek, irakasle-elkarteek eta espezialistek. Kritika batzuek diotenez, akordio horrek geldiarazi egin zuen galeserazko hezkuntzaren hazkundera sistemaren baitan, eta galeseraz ikasteko aukera hori ukatu zien Cardiff-en ikasten zuten ikasle gero eta ugariagoi (unibertsitatea osatzen zuten zazpi eskoletako hiru Cardiff-en zeuden, hain zuzen ere, Cardiff-eko Galeseko Unibertsitate Eskola, Galeseko Unibertsitateko Zientziaren eta Teknologiararen Institutua eta Galeseko Unibertsitateko Medikuntza Eskola) bai eta Swansea-n eta Lampeter-en ikasten zutenei ere. Horiek ez zuten irakasgaiak galeseraz ikasteko aukerarik. Richard Wyn Jones-ek (Wyn Jones, 2004) zorrozki kritikatu zituen Galeseko goi-mailako hezkuntzako erakundeen akatsak, galeseraz ikasi nahi zuten ikasleen beharrei erantzuteari zegokionez.

Horren arabera, goi-mailako hezkuntzako sistemak zerbitzu eskasa egiten die Galeseko herritarrei, eta akatsak ditu oinarrizko arlo askotan: ez du galeserazko hezkuntza sustatzen, ikerketa gutxi egiten dira galeseraren inguruko gaietan, eta sistemak ezin du eragotzi gazte talentudunek Ingalaterrako unibertsitateetara ihes egitea. Kritika horretan jasotzen ziren unibertsitate-mailako hezkuntzaren egitura-akatsak, hamarkada askoan zehar hautemandakoak.

Ikuspegi horri jarraiki, sistema ingelesaren gehigarri gisa ikusten zen Gales, hura dinamikoagoa eta sendoagoa izaki. Gales gehiegi kezkatzen zen barne-administrazio txikieriekin eta ia bideragarriak ez ziren erakunde txikien arteko lehiarekin; izan ere, horiek ez zuten espero bezain ongi jokatzeko nazioarteko ligan. Jones-ek bere kritikan azpimarratutako sistemaren akatsak ezagunak ziren irakasleen artean, eta galeserazko irakaskuntzarekiko konpromisoa zuten unibertsitate-irakasleek askotan mahaigaineratu zituzten horiek hainbat batzordetan. Alabaina, guztiz axolagabe ageri zen administrazio batekin eta ikasleen merkatuko eska-riaren aginduekin egin zuten topo.

GALESEKO UNIBERTSITATEAREN HAUSTURA

60ko hamarkadaren amaiera aldetik, 90eko hamarkadara arte, Aberystwyth eta Bangor unibertsitate-eskoletan biltzen zen galeserazko hezkuntzaren eskaintza unibertsitate-mailan.

Alabaina, zenbait joerek eredu hori aldarazi zuten, eta galeserazko irakaskuntzaren egitura aldatu egin zen.

Honako hau izan da joera-aldaketa garrantzitsuenetako bat: Aberystwyth eta Bangor eskolek gero eta ikasle gutxiago erakartzen dituzte, ikasleek nahiago baitute Cardiff-eko Unibertsitatean ikasi, bai eta, neurri txikiagoan, Cardiff inguruko goi-mailako hezkuntzako gainerako erakundeetan ere. Cardiff-ek estatus nabarmena du, Galeseko unibertsitate nabarmenena delako ikerkuntzaren alorrean; gainera, Russell Group taldeko kide da, eta Galeseko hiriburu bizian dago. Plaza-lehia eragin du horrek, eta, hain maila altua dela eta, Galeseko ikasle askok bertan ikasi nahi dute. Halere, historikoki, erakunde horrek ez ditu aintzat hartu galeseraz ikasi nahi zuten ikasleen beharrak, eta zaila izan da horren eskaintza eskari-maila berrira egokitzea. Hain zuzen ere, horregatik erabili dut “frustrazio” hitza idazlan honen izenburuan. Honako hau da bigarren joera berria: gero eta ikasle galestar gehiagok gauzatzen dituzte unibertsitate-ikasketak Galesen bertan. Hiru faktore hauen ondorioz izan daiteke hori: 1) Galesen gelditzen diren ikasleek ez daukate kuota gehigarririk ordaindu beharrik, eta finantzaketa-egitura desberdina da horientzat, EBko beste edozein lekutan ikasten dutenekin alderatuta; 2) nabarmen hobetu da Galeseko unibertsitateetako hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea; 3) alderdi ekonomikoak, hala nola, ostatu-hartzearekin, garraioarekin eta bizi-mailarekin lotutakoak. Horrek etxean bizitzera bultzatzen ditu ikasleak, edo, gutxienez, aukeratutako unibertsitateetik arazoizko distantzia batera.

Kontuan hartzekoa da, baita ere, eragina izan dezakeela Cardiff-eko Unibertsitatea eta, ondoren, Swansea-ko Unibertsitatea Galeseko Unibertsitate Federaletik banandu izanak. Hori izan zen inflexio-puntu nagusia hezkuntza-eskaintzari dagokionez. 1893an sortu zen Galeseko Unibertsitatea, Aberystwyth-eko, Bangor-eko eta Cardiff-eko eskolez osatzen zena. Galeseko nortasunaren eta bizitza nazionalaren oinarritzat jotzen zen hori. Cardiff-ek eta Swansea-k banantzeko erabakia hartu zuten jarraian azalduko ditugun hiru arrazoiengatik. Lehenik, banantze horrek amaiera eman zion ordura arte unibertsitate federalaren baitan lanaren eta espezializazioaren artean izandako banaketa formalari. Gainera, ekintza-autonomia handiagoa eman zien unibertsitate independenteei, eta horiek erabaki ahal izan zuten zer diziplina eta espezializazio landu edota kendu nahi zituzten beren irakasgai-eskaintzatik. Ondorioz, Cardiff-eko Unibertsitatea banandu egin zen Unibertsitate Federaletik, eta, geroago, hain zuzen ere, 2004ko abuztuan, Galeseko Unibertsitateko Medikuntza Esko-

Horren arabera, goi-mailako hezkuntzako sistemak zerbitzu eskasa egiten die Galeseko herritarrei, eta akatsak ditu oinarritzko arlo askotan: ez du galeserazko hezkuntza sustatzen, ikerketa gutxi egiten dira galeseraren inguruko gaietan, eta sistemak ezin du eragotzi gazte talentudunek Ingalaterrako unibertsitateetara ihes egitea.

Zenbait joerek eredu hori aldarazi zuten, eta galeserazko irakaskuntzaren egitura aldatu egin zen.

Unibertsitate-mailako erakunde horien egitura berria zela eta, guztiz aldatu beharra zegoen galeserazko eskaintzaren eredu historikoa.

Nabarmen areagotu ziren hizkuntza-egitasmo adostuen bidez zerbitzu elebidunak sortzeko ahalmena eta lege-baldintzak.

larekin bat egin zuen, erakunde handiagoa osatzeko, askotariko aukerak eskainiz. Alde askotatik begiratuta, logikoa izan zen berregituraketa hori, saihestezina agian; izan ere, 1996az geroztik, Galeseko Unibertsitatea berregituratu egin zen, eta erakunde kideen bi mailatako egitura ezarri zuen, honako erakunde hauek xurgatu ahal izateko: Cardiff-eko Goi Mailako Hezkuntzako Institutua (Cardiff-eko Galeseko Unibertsitateko Institutu (UWIC) bihurtu zen) eta Gwent-eko Goi Mailako Hezkuntzako Eskola (Newporteko Galeseko Unibertsitateko Eskola (UWCN) bihurtu zen). Lehendik zeuden unibertsitate-eskolak erakunde osagarri bihurtu ziren, eta kide berri horiek unibertsitate-eskola bihurtu ziren. 2003an, bi unibertsitate-eskola horiek kide oso bihurtu ziren, eta, 2004an, EBko Kontseilu Pribatuak baimena eman zion UWCNri bere izena aldatzeko, eta, horrela, Newport-eko Galeseko Unibertsitate bihurtu zen.

Bigarrenik, aldaketa horiek bizkortu egin zuten Galeseko unibertsitate-sektorearen berregituraketa, eta bateratzeak eta berregituraketak gauzatu ziren: Musikaren eta Dramaren Galeseko Errege Eskola Glamorgan-eko Unibertsitatearekin bateratu zen 2008an; Swansea-ko Goi Mailako Hezkuntzako Institutua Swansea Metropolitan bihurtu zen 2008an; Galeseko Ipar Ekialdeko Goi Mailako Hezkuntzako Institutua Glyndŵr Unibertsitate bihurtu zen 2008an; eta 2009ko udan, St David Galeseko Unibertsitate Eskola, Lampeter eta Carmarthen-go Trinity Unibertsitate Eskola elkartu ziren, eta Trinity St David's osatu zuten.

Hirugarrenik, unibertsitate-mailako erakunde horien egitura berria zela eta, guztiz aldatu beharra zegoen galeserazko eskaintzaren eredu historikoa. Erakunde horietako askok konpromiso profesionalagoa zuten, eta aldarrikatu zuten prest zeudela gobernu-politikak ezarritako erronkei aurre egiteko, bai eta herri-administrazioko eta ekonomiako aldaketei ere, galesera sustatzeko ahalegin sendoagoek eragindakoei. Nabarmen areagotu ziren hizkuntza-egitasmo adostuen bidez zerbitzu elebidunak sortzeko ahalmena eta lege-baldintzak. Horretarako, behar bezala prestatutako langile elebidunak behar ziren, eta unibertsitate-sektorearen eginkizunetako bat izan zen eskaera horri aurre egitea eta erantzutea.

EGUNGO BILAKAERA ETA AUKERAK

2007ko udan, ondorio garbirik gabeko Biltzar Nazionaleko hauteskunderen ondoren, Alderdi Laboristak eta Plaid-ek gobernu-koalizioa osatu zuten Biltzar Nazionalean, *One Wales*-en (2007) jasotako politika-helburu adostuak oinarri hartuta. Nabarmentzekoa da galeserazko hezkuntza sendotzeko akordioa, galeserari buruzko Biltzar Nazionaleko legedia ezartzen zuena; akordio horrek hizkuntza-sailburu bat izendatu zuen, eta indartu egin zuen Galesek nazioartean beteko zuen papera. Koalizio horrek ez ditu bete jarraian aztertzen diren proposamen guztiak. Izan ere, gutxienez bi belaunalditan zehar eztabaidatu dira horiek Galeseko hez-

kuntza-politikaren arloan. Halere, Plaid-ek gobernura ekarri duen bultzada berri horrek itxaropenak piztu ditu, eta pentsarazi du politika horietako batzuk benetan gauza daitezkeela gobernu-politika orokorrean. Biltzar Nazionalak konpromisoa hartu duenez unibertsitate-mailako galeserazko ikasketen eskaintza hobetzeko, nahitaezkoa zen ikerketa bat egitea egungo eskaintzari buruzko datuak biltzeko. Beraz, Datuen gaineko Lan Espezifikotarako Talde bat osatu zuen Galeserazko Goi Mailako Hezkuntzako Sektore Taldeak (WM HESG). Horren eginkizunak dira:

a. Aztertzea Goi Mailako Hezkuntzako Estatistika Agentziaren (HESA) zer datu dauden eskuragarri galeseraz, eta horien berri emateko prozesua zehaztea, erabilerraza eta egokia izango dena.

b. Datuak biltzeko beste edozein iturri identifikatzea, galeserazko eskaintzari buruzko informazioa biltzen lagun dezakeena.

c. Zehaztea zer datu bildu beharko diren etorkizunean.

d. Identifikatutako datuak nola erabili beharko liratekeen gomendatzea, bereziki, bilakaera akademikoaren plangintza egiteari dagokionez.

HESAREN datuei buruzko informazioa prestatu zuten Galeseko Goi Mailako Hezkuntzaren Finantziatorako Kontseiluko (HEFCW) estatistikariak; hiru lan-orri osatu zituzten erakunde bakoitzeko, bai eta Gales osoari buruzko datuak ere.

Jarraian datozen tauletan jasotzen dira Gales osoari buruzko datuak, ikasleei eta langileei dagozkienak; 2007/08 ikasturteko datuak dira, eta 2006/07 ikasturtearekiko desberdintasunei buruzko azalpenak azaltzen dira.

Beren ikasketetako elementuren bat galeseraz ikasten duten ikasleen ehunekoa %9 hazi da batez beste, datuetan aztertutako bi urteen artean. Hala eta guztiz ere, gora egin du, baita ere, galesera menderatzen duten ikasleen kopuruak, eta, beraz, mantendu egin da galesera menderatzen duten ikasleen artean galeseraz ikasten duten ikasleen ehunekoa.

1. Taula: Galesera hitz egiten duten ikasleak, 2007/08 ikasturtean, irakasgaikako kostu-zentroen arera

Irakasgaiak	Ehunekoak ¹	Galeseraz ikasten dute	Mendera-tzen dute	Ez dute menderatzen	Ez dakite galesera
Medikuntza klinikoa	% 0	0	167	121	2,962
Odontologia klinikoa	% 0	0	36	20	369
Albaitaritza-zientzia	*	* ²	11	24	153
Anatomia eta fisiologia	% 0	0	89	63	1,449
Erizaintza eta ikasketa paramedikoak	% 17	137	830	795	8,011
Osasun- eta komunitate-ikasketak	% 23	169	735	527	4,698
Psikologia eta portara-zientziak	% 23	46	202	208	3,018
Farmazia eta farmakologia	% 0	0	72	34	634
Biozientziak	% 13	25	199	199	3,180
Kimika	*	*	43	32	596
Fisika	*	*	61	44	647
Nekazaritza eta lorezaintza	% 29	36	124	66	793
Lur-zientziak, itsas zientziak eta ingumen-zientziak	% 25	36	143	112	1,772
Ingeniaritza orokorra	% 0	0	39	57	933
Ingeniaritza kimikoa	*	0	*	*	147
Meatzeetako, metalurgiako eta materialetak ingeniari-tza	*	*	58	68	861
Ingeniaritza zibila	% 0	0	93	63	1,393
Ingeniaritza elektrikoa, elektronikoa eta ordenagailu-ingeniari-tza	% 7	7	96	74	1,535
Ingeniaritza mekanikoa, aeronautikoa eta ekoizpen-ingeniari-tza	% 0	0	119	138	2,117
Arkitektura, ingurune eraikia eta plangintza	% 0	0	206	170	2,028
Matematikak	% 17	14	82	53	741
IT eta sistema-zientziak, ordenagailu-softwarearen ingeniari-tza	% 10	23	228	340	3,995
Enpresa- eta administrazio-ikasketak	% 28	255	900	819	14,516
Geografia	% 68	38	56	19	263
Gizarte-zientziak	% 22	157	703	634	8,426
Komunikabide-ikasketak	% 19	30	156	167	2,505
Giza zientziak eta Hizkuntza-zientziak	% 96	1,381	1,442	1,180	14,114
Diseinua eta sormen-arteak	% 31	207	659	700	7,420
Hezkuntza	% 82	1,357	1,664	2,241	8,254
Hizkuntza modernoak	% 22	55	247	152	2,093
Arkeologia	*	*	52	77	1,033
Kirol-zientziak eta isialdi-ikasketak	% 6	17	285	190	2,416
Hezkuntza iraunkorra	% 0	0	0	0	0
Zerbitzu akademiko osoak	% 0	0	0	0	0
Administrazio eta zerbitzu zentralak	% 0	0	0	0	0
Langileen eta ikasleen zerbitzuak	% 0	0	0	0	0
Egoitzak eta cateringa	% 0	0	0	0	0
Bestelakoak/Bateratuak/Mapaketarik gabekoak	% 105	454	431	385	2,469
Guztira	% 43	4,442	10,224	9,771	105,540

(Iturria: Datuen gaineko Lan Espezifikotarako Taldearen amaierako txostena, 2008/09)

Lan Espezifikotarako Taldeak (2008/09) honela interpretatzen ditu datu horiek: “beren ikasketetako elementuren bat galeseraz ikasten duten ikasleen ehunekoak %9 hazi da batez beste (356 ikasle gehiago galeseraz ikasten), datuetan aztertutako bi urteen artean. Hala eta guztiz ere, gora egin du, baita ere, galesera menderatzen duten ikasleen kopuruak, eta, beraz, mantendu egin da galesera menderatzen duten ikasleen artean galeseraz ikasten duten ikasleen ehunekoak (07/08: %43; 06/07: %44). Irakasgai-arlo gustukoenak dira hezkuntza eta giza zientziak eta hizkuntza-ikasketak. Horietako bakoitzak biltzen du galeseraz ikasten duten ikasleen laur-

den bat baino gehiago. Gustuko irakasgai-arloen artean, erizaintza da hurrengoa; halere, galeseraz ikasten duten ikasleen ehunekoa (07/08: %16; 06/07: %19) irakasgai-arlo guztietako batez bestekoa baino baxuagoa da. Geografia eta ingurumen-zientziak ikasle gutxik ikasten badituzte ere, galesera dakiten ikasleen %40k, gutxi gorabehera, galeseraz ikasten du.

2. Taula. 2007/08ko ikasleak. Gradu aurrekoak / Graduondokoak. Denbora osoz / denbora partzialez

DO/DP	Maila	Ehunekoak	Galeseraz ikasten dute	Menderatzen dute	Ez dute menderatzen	Ez dakite galesera
Denbora osoz	GO	% 41	245	591	509	10,306
Denbora partzialez	GO	% 45	254	560	733	10,560
Denbora osoz	GA	% 41	2,323	5,692	5,042	56,075
Denbora partzialez	GA	% 48	1,625	3,385	3,490	28,599

(Iturria: Datuen gaineko Lan Espezifikotarako Taldearen amaierako txostena, 2008/09)

Ikusten denez, ez dago diferentzia nabarmenik galeseraz ikasten dutenen ehunekoari dagokionez gradu-aurreko ikasketetan denbora osoz ikasten dutenen eta denbora partzialez ikasten dutenen artean.

3. Taula. Galeserazko ikasketak eta ikasleak goi-mailako hezkuntzako erakundeetan 2007/08

Unibertsitatea	Ehunekoak	Galeseraz ikasten dute	Menderatzen dute	Ez dute menderatzen	Ez dakite galesera
Aberystwyth-eko Unibertsitatea	% 40	461	1,154	816	7,897
Bangor-eko Unibertsitatea	% 68	1,206	1,786	907	7,824
Cardiff-eko Unibertsitatea	% 13	190	1,491	1,333	23,763
Glynd r Unibertsitatea	% 38	157	416	796	6,051
Swansea Metropolitan	% 1	6	432	1,248	3,913
Swansea-ko Unibertsitatea	% 23	253	1,103	819	11,952
Trinity Unibertsitate Eskola	% 155 ³	1,074	694	409	1,120
Glamorgan-eko Unibertsitatea	% 8	138	1,685	1,799	19,226
Lampeter-eko Galeseko Unibertsitatea	% 224	576	257	313	7,316
Newport-eko Galeseko Unibertsitatea	% 65	268	414	795	7,911
UWIC	% 15	118	796	539	8,567
Guztira	% 43	4,447	10,228	9,774	105,540

(Iturria: Datuen gaineko Lan Espezifikotarako Taldearen amaierako txostena, 2008/09)

Lan Espezifikotarako Taldeak ondorioztatzen du galesera hitz egiten duten ikasleen kopuru handia dagoela Galeseko goi-mailako hezkuntzako erakunde bakoitzean. “Galeseraz hitz egiten duten ikasleen kopuru handienak biltzen dituzte Bangor-eko, Cardiff-eko eta Glamorgan-eko goi-mailako hezkuntzako erakundeek. Galesera menderatzen dutenen artean galeseraz ikasten dutenen ehunekoak oso desberdinak dira erakunde bakoitzean. Hiru taldetan bana ditzakegu goi-mailako hezkuntza-

ko erakundeak. Alde batetik, Trinity eta Lampeter: galeseraz ikasi nahi duten zenbait ikasle biltzen dira horietan. Beste alde batetik, Aberystwyth eta Bangor: galesera menderatzen duten ikasleen %50ak ikasten du galeseraz. Eta, azkenik, goi-mailako hezkuntzako gainerako erakundeak: galesera menderatzen duten ikasleen %25ak baino gutxiagok, %10ak batez beste, ikasten du galeseraz”.

4. taula: Galeseraz irakasten duten irakasleak, goi-mailako hezkuntzako erakunde bakoitzeko, 2007/08

Unibertsitateak	Galeseraz irakasten dute	Galeseraz irakasteko gai dira ⁴	Irakasleak guztira	Galeseraz irakasteko gai diren irakasleen ehunekoak, guztirako irakasleekiko
Aberystwyth-eko Unibertsitatea	85	109	874	% 12
Bangor-eko Unibertsitatea	84	145	742	% 20
Cardiff-eko Unibertsitatea	80	98	2,833	% 3
Glynd r Unibertsitatea	7	22	286	% 8
Swansea Metropolitan Unibertsitatea	0	8	310	% 3
Swansea-ko Unibertsitatea	33	80	1,069	% 7
Trinity Unibertsitate Eskola	44	46	118	% 39
Glamorgan-eko Unibertsitatea	34	62	1,453	% 4
Lampeter-eko Galeseko Unibertsitatea	7	8	159	% 5
Newport-eko Galeseko Unibertsitatea	4	15	405	% 4
UWIC	7	21	572	% 4
Guztira	384	614	8,823	% 7

(Iturria: Datuen gaineko Lan Espezifikoetarako Taldearen amaierako txostena, 2008/09)

Galeseraz irakasten duten irakasleen erdiak baino gehiagok honako arlo hauek lantzen ditu: hezkuntza, giza zientziak, hizkuntza-ikasketak eta sormen-arteak. Galeseko goi-mailako hezkuntzako erakundeetako irakasleen %7 galeseraz irakasteko gai bada ere, batez beste, %4k irakasten du zer edo zer galeseraz.

Gomendio nagusiei jarraiki, urteroko datu-bilketak gauzatzea komeni zen (lehentasunezko arloak zein ziren jakin ahal izateko), langileak erakartzeko politikak gauzatu beharra zegoen, eta behar-azterketa bat egin behar zen. Behar-azterketa horri esker, zehaztu ahal izango zen galesera menderatzen zuten zenbat ikasle zeuden irakaskuntza-arlo bakoitzean, galeserazko ikasketen eskaera potentzialik ba ote zegoen jakiteko. Ondorioz, goi-mailako hezkuntzako erakundeek beharren eta eskariaren azterketa aipatu ahal izango zuten diru-laguntzak eskatzean. Nire ustez, txosten hori berritzailea eta garrantzi handikoa izan zen, eta bide berriak zabaldu zituen unibertsitate-mailako galeserazko irakaskuntzarentzat eta ikaskuntzarentzat. Halere, agerian uzten du eskaintza hori arriskuan dagoela, eta garbi adierazten du zein diren urritasunak eta egin beharreko inbertsioak, goi-mailako hezkuntzako erakundeen sektorean ingelesa eta galesera berdintasunez tratatuak izatea nahi bada. Gaur egun, seinaleak positiboak dira, eta pentsa dezakegu hobekuntza nabarmena egongo dela esparru horretan epe ertainean. Egia esan, presio politiko handia dago bilakaera horren eske. Goi-mailako hezkuntzako erakundeetako

zuzendari nagusien jarrerak eta konpromisoak, berriz, ez daude horren argi. Izan ere, zentzu askotan, ekimen horiek aldatu egin dute ohiko eskaintza-ereduen oreka, eta eragile berri bat jarri dute jokoan, garrantzi handia har dezakeena. Bestalde, aztertu behar da ea bilakaera hori irakaskuntzaren arlokoa soilik den, edo ea galesera sustatu nahi dugun beste arlo batzuetan ere, hala nola, ikerketan, argitalpenetan eta ikasketetako diru-laguntzetan, oro har. Pozgarria da ikustea ikasle gazteak irakaskuntzaren alorreko lan-mundura erakar daitezkeela, batez ere galeseraz gehiegi landu ez diren zenbait arlotara. Alabaina, zailagoa da lehendik lanean ari diren irakasleei pentsaraztea egitasmo horrek dakartzan bila-kaerak eta aukerak mesedegarri izango direla eurentzat ere.

Gaur egun, seinaleak positiboak dira, eta pentsa dezakegu hobekuntza nabarmena egongo dela esparru horretan epe ertainean. Egia esan, presio politiko handia dago bilakaera horren eske.

GALESERA GOI-MAILAKO HEZKUNTZAKO ERAKUNDEETAN 2007/08

2009ko ekainean, Galeseko Biltzarreko Gobernuak estatistika-aldizkari bat argitaratu zuen, 2007/08 ikasturtean galeserak goi-mailako hezkuntzako erakundeetan zuen egoerari buruzkoa (Galeseko Biltzarreko Gobernuak, 2009). Honako hauek izan ziren emaitza nabarmenenak:

- Gora egin zuen, berriz ere, ikasketaren bat galeseraz gauzatzen zuten ikasleen kopuruak; beraz, mantendu egin zen azken urteotako goranzko joera. Matrikulazio guztiei zegokienez, ikasleen %3,5ek ikasten zuen irakasgairen bat galeseraz.
- Galeseko goi-mailako hezkuntzako erakundeetan matrikulatutako 4.445 ikaslek lantzen zuten irakasgairen bat galeseraz, hau da, %9,1 gehiagok 2006/07 ikasturtearekin alderatuta (4.075).
- Galeseko goi-mailako hezkuntzako erakundeetan matrikulatutako ikasleen %3,5ek lantzen zuen irakasgairen bat galeseraz; 2006/07 ikasturtean, berriz, %3,2k.
- Irakasgairen bat galeseraz ikasten zutenen artean, %26 denbora osoko ikasle zen, eta denbora partziaz ikasten zuten ikasleen %62k galeseraz gauzatzen zituen ikasketa osoak.
- Galeseko goi-mailako hezkuntzako erakundeetan, Galesen bizi ziren 4.050 ikaslek lantzen zuten irakasgairen bat galeseraz, hau da, 2006/07 ikasturtean (3.755) baino %7,9 gehiagok.
- 620 irakasle ziren gai galeseraz irakasteko, baina horietako 390ek soilik irakasten zuten galeseraz.

GALESERAZKO HEZKUNTZARAKO ESTRATEGIA 2009

2009ko maiatzean, Galeseko Biltzarreko Gobernuak kontsulta-dokumen-
tu bat argitaratu zuen, galeserazko hezkuntzaren gaineko etorkizuneko
planei buruzkoa. Aurrerapen garrantzitsua izan da hori. Izan ere, lehena-

Estrategiak garrantzi handia ematen dio langile elebidunen prestakuntzari eta trebetasun-lanketari, eta unibertsitatekoa ez den goi-mailako hezkuntza eta laneko prestakuntza ematen duten erakundeak ere azpimarratzen ditu.

go, Hezkuntza Sailak kritikak jaso zituen ez zuelako laguntza zehatzik ematen Iaith Pawb estrategia-dokumentua (Williams, 2004) prestatzeko. Hiru azpitalde izendatu ziren, goi-mailako hezkuntzako sektoreko taldeari laguntzeko. Horien eginkizuna zen Garapenerako Plan Nazionalako zenbait alderdi espezifiko lantzea, hala nola, marketina, aurrerapena eta eskari-sustapena, langileen bilakaera eta e-learning eta b-learning edo ikaskuntza konbinatua. Sareko hamabi talde daude, eta, horien bidez, erakundeek lankidetzan jardun dezakete baliabide eta eskaintza berriak sortzeko galeserazko goi-mailako hezkuntzarako arlo jakin batzuetan. Inbertsio handiak egin dira galeseraz irakatsiko duten irakasleak hornitzeko (220 guztira) Graduondoko Diru Laguntza Egitasmoaren eta Galeserazko Irakaskuntzarako Diru Laguntza Egitasmoaren bidez; Galeserazko Goi Hezkuntzako Zentroak kudeatzen ditu horiek. 2009ko otsailean, goi-mailako hezkuntzako sektoreak erabaki zuen baliabide elektronikoen atari nazional bat sortzea, bai eta ikasketa birtualerako ingurune (VLE) bat ere, galeserazko goi-mailako hezkuntzako sektorearentzat. Horren xedea izango da sareko galeserazko baliabideen biltegi nagusi bat osatzea, galesera erabiltzen duten ikasleek eta fakultatiboek erabil dezaten. Horrek VLE bat ere barne hartuko du, lankidetzatza-modulueterako ikaskuntza-materiala biltzeko, eta ikaslea gidatzeko modu eraginkorrean

Estrategiak garrantzi handia ematen dio langile elebidunen prestakuntzari eta trebetasun-lanketari, eta unibertsitatekoa ez den goi-mailako hezkuntza eta laneko prestakuntza ematen duten erakundeak ere azpimarratzen ditu zazpigarren atalean. Aitzitik, soilik hiru paragrafotan aztertzen du unibertsitateek zer paper jokatzen duten 4. helburu estrategikoan zehaztutako gomendioei dagokienez. Lehendik martxan dauden egitasmoak dira gehienak, eta ez dago ekimen berri handirik. Mesfidantzak alde batera utzita, dokumentua existitzeak berak, eta galeserazko legezko hezkuntza-sektorearekiko erakutsitako konpromisoak, pentsarazten dute aurrerapenak egingo direla goi-mailako erakundeetako hezkuntza eta prestakuntza elebidunari dagokienez; bestela ez da lortuko ez gizarte elebidunik, ez eta langileria elebidunik ere. Estrategia horretan garrantzi berezia dauka galeserazko unibertsitate-eskola bat sortzeak; horrek goi-mailako hezkuntzako eskaintzan beste elementu bat gehituko duela ulertzen da, ezer kendu beharrean.

Y COLEG FFEDERAL

2006ko udan, *One Walesen* zehaztutako konpromisoei jarraiki, Haur, Hezkuntza, Bizi Osorako Ikaskuntza eta Trebetasun ministroak iragarri zuen Unibertsitate Eskola Federalesko Plangintza Batzordea sortu zela, eta Robin Williams irakasleak zuzenduko zuela hori. Hark txosten bat argitaratu zuen 2009an, eta, interes-talde guztien arteko akordio bat aurreikusten zuen, *spoke and hub* (gune eta adar) sisteman oinarritutakoa. Inte-

res-taldeak dira: goi-mailako hezkuntzako erakundeak, irakasleak eta ikasleak barne, HEFCW eta Galeseko Biltzarreko Gobernuak. Unibertsitate Eskola legezko erakunde independentea izango da, egitura propioa izango du, eta erabakiak hartzeko ahalmena izango du; halere, aurrez adierazi dute goi-mailako hezkuntzako erakundeen taldea izango dela horren arduradun, hori baita interes-talde nagusia. Akordio formala izenpetuko dute Coleg Ffederal-ek eta HEFCWk, bermatzeko, Coleg Ffederal-en bidez bideratutako funtsak kudeatzerakoan, aintzat hartuko direla horren egitura, HEFCWren diruzaintza-eskakizunak eta Galeseko Biltzarreko Gobernuaren nahiak. Administrazio-egiturak gune zentral bat izango du, bai eta zenbait adar ere goi-mailako hezkuntzako erakundeetan; horrela, komunikazioa eta erabakiak hartzeko prozesuak bizkortu egingo dira. Coleg Ffederal-eko kide izateko aukera izango dute galeserazko irakaskuntzan eta ikaskuntzan parte hartzen duten langileek eta ikasleek, eta ordezkariak izango dute horren Kontseilu Nazionalan. Batzordearen iritziz, egungo epe motzeko funtsak epe luzeko finantza-konpromisotzat hartu eta berregituratu beharko liriteke, ekimen hori lantzeko eta goi-mailako hezkuntzako erakundeetako eskaintzako eta aurrekontuko egiturazko elementu bihurtzeko hori.

Galeserazko eskaintza Aberystwyth-en eta Bangor-en biltzen zen lehen; horregatik, zaila da eskaintza hori sortzea goi-mailako hezkuntzako gainerako erakundeetan, igurikimenei eta ahalmenei dagokienez. Egungo bilakaeraren erakusgarri, nire unibertsitateko, hau da, Cardiff-eko unibertsitateko adibide bat azalduko dizuet. Unibertsitate horrek ez die erantzun galeseraz ikasi nahi zutenen beharrei, Galeseko unibertsitateen artean erakargarriena bada ere, bai plaza-lehiari dagokionez, bai eta EBko unibertsitate-sektoreko ikerketaren arloko sailkapenari dagokionez ere.

CARDIFF-EKO UNIBERTSITATEAREN BILAKAEREN ADIBIDEA

1. Egungo eskaintza galeserazko hezkuntzan eta goi-mailako prestakuntzan

Cardiff-en, humanitateen alorreko zenbait irakasgaitan soilik izan du indarra galeserazko irakaskuntzak, Galesera eta Galeseko Historia irakasgaietan batez ere. Honako irakasgai hauetan ere galeserazko eskaintza handiagotuko dela dirudi: gizarte-zientzietan, soziologian eta hiri- eta herrialde-plangintzan bereziki, zientzia aplikatuetan, farmazian, optometriari eta ingeniarietan. Edonola ere, kopuruak eta ahalmen mugatua beti izan dira oztopo, Unibertsitateko Batzordeak sustapen-ahaleginak eta plangintzak egin baditu ere galeserazko eskaintzaren gainean. 2009/08 ikasturtean, 26.585 ikasle zeuden Cardiff-eko Unibertsitatean matrikulatuta; horietatik 190ek galeseraz jasotzen zuten irakasgairi bat,

Estrategia horretan garrantzi berezia dauka galeserazko unibertsitate-eskola bat sortzeak; horrek goi-mailako hezkuntzako eskaintzan beste elementu bat gehituko duela ulertzen da, ezer kendu beharrean.

*Unibertsitate Eskola
legezko erakunde
independentea izango da,
egitura propioa izango
du, eta erabakiak
hartzeko ahalmena
izango du; halere, aurrez
adierazi dute goi-mailako
hezkuntzako erakundeen
taldea izango dela horren
arduradun, hori baita
interes-talde nagusia.*

hau da, ikasle guztien %0,7k. Horietako asko ikasle galestarren irakasgai bakuneko edo bi irakasgaitako eskolak ziren. Beraz, galeserazko hezkuntza sustatu nahi zutenek erronka handi bati aurre egin behar zioten, baina, nahi politikoari eta pedagogikoari esker, ez zen ezinezkoa hori gainditzea. Hain zuzen ere, Galeseko hego-ekialdeko gunean, galeserazko derrigorrezko hezkuntza sustatzeko ahaleginak egiten ari ziren 60ko hamarkadaz geroztik.

2. Cardiff-eko Unibertsitateko galesera-egitasmoa eta erakunde-eskaintza

1993ko Hizkuntza Legeari jarraiki, hizkuntza-egitasmoak ezarri ziren zerbitzu elebidunak bermatzeko sektore publikoan, eta bi hizkuntzak berdintasunez tratatzeko. Galeseko erakunde publiko guztientzako derrigorrezko jarraibideak (Legearen 9. atala) honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan:

- Egitasmo elebiduna
- Hurbilketa zerbitzu-eskaintzara (berdintasun-printzipioari jarraiki)
- Politika eta ekimen berriak
- Zerbitzuak martxan jartzeko pausoak
- Galeserazko zerbitzuen kalitate-maila
- Galeseraz hitz egiten duen jendeari erantzuna ematea
- Erakundearen alderdi publikoa
- Egitasmoa ezartzea eta ikuskatzea.

Ikuskatzeari eta ezarpenari dagozkien jarraibideek barne hartzen dituzte ebaluazioari eta arautzeari buruzko neurriak, honako hauei dago-kienez: giza baliabideei, hizkuntza- eta lanbide-prestakuntzari, hirugarrenetikiko akordioen egitasmoen kudeaketari, egitasmoa ikuskatzeari, xedei eta informazioa argitaratzeari.

Cardiff-eko Unibertsitateko hizkuntza-egitasmoak seigarren urtea du jada, eta hori berriztatzen ari dira. 2004an hizkuntza-egitasmoa ezarri zenean, graduatu gabeko 18.100 ikasle eta graduatutako 6.555 ikasle zituen unibertsitateak, gutxi gorabehera. Unibertsitateak 4.300 langile ditu, eta zenbait egoitza ditu Cardiff hirian zehar, bai eta zenbait sail ere Galesen zehar. 2004ko azterketen arabera, ikasleen artean, gutxi gorabehera 5.430 (%30) galestarrak ziren, eta horietatik 1.086k hitz egiten zuten galesera (guztirakoaren %6k, gutxi gorabehera). 2.676 irakasleen artean, gutxi ziren elebidunak, eta %1ek baino gutxiagok adierazi zuen galeseraz irakasteko gai ikusten zuela bere burua. Nazioz kanpokoak ziren 3.700 ikasle (%15), bai eta gero eta irakasle gehiago ere. Beraz, nazioarteko unibertsitate horri dagokionez, honako demografia-adierazle hauek hartu behar dira kontuan: 2004/05 ikasturtean, 1.086 ikaslek hitz egiten zuten

galeseraz, hau da, ikasle guztien %6k; 2.676 irakasleen artean, %1ak soilik uste zuen irakasgai guztiak edo batzuk galeseraz irakasteko gai zela. Hori muga larria da galeserazko egitasmo baten aplikaziorako, bai eta horrek izan ditzakeen asmoetarako ere.

Unibertsitateko galesera-zerbitzuen buruak kudeatzen ditu zerbitzu-plangintza eta egitasmoa gauzatzea. Edonola ere, 28 ikastetxeetako eta 7 administrazio-zuzendaritzetako buruek ere konpromisoa hartu dute egitasmoa aplikatzeko beren ikastetxeetan/zuzendaritzetan. Horietako bakoitzak galesera-egitasmoaren koordinatzaile bat izendatu du, egitasmoa unibertsitatean zehar ezartzen eta zuzentzen laguntzeko.

Honako hauek dira unibertsitateko galesera-zerbitzuetako buruen erantzukizunak:

- Egitasmoa ikastetxe eta zuzendaritza guztietan ezartzen laguntzea eta ezarpena koordinatzea
- Itzulpen-zerbitzua kudeatzea
- Unibertsitateko galesera-eskaintza lantzea

Galesera-egitasmoaren bi bideratzailek laguntzen diote unibertsitateko galesera-zerbitzuko buruari. Horien eginkizuna da egitasmoaren ezarpena bideratzea eguneroko lanean, eta ikastetxeetako/zuzendaritzetako koordinatzaileekin lankidetzan aritzea, egitasmoa beren zerbitzu-arloetan ezartzen laguntzeko. Politika eta ekimen berriak zehazterakoan, berdintasun-printzipioa aplikatzeko aukera guztiak baliatuko ditu unibertsitateak ahal den guztietan.

- Honako arlo hauei buruzkoak dira hizkuntza-egitasmoko atalak:
- Kalitate-maila
- Egitasmoa sustatzea eta kontrolatzea
- Jendearekiko tratua
- Cardiff-eko Unibertsitatearen irudi publikoa
- Ikasleentzat galesera-eskaintza
- Galesera-trebetasunen estrategia
- Kexuak eta hobekuntzak

Pixkanaka, unibertsitateko administrazioiko osoko elementu bihurtu da galesera-egitasmoa, EBko eta Europako legediak estalitako berdintasun-agendako gainerako elementuen antzera. Halere, bistakoa denez, hizkuntza-egitasmoei badute beste alderdi garrantzitsu bat, txosten formalez eta kontrol burokratikoaz gainera; hain zuzen ere, ikasleek eta irakasleek egitasmoaren helburuen eta lorpenen inguruan bizitako errealitatea eta esperientzia. Horri dagokionez, desberdintasunak daude ikastetxeen eta administrazio-zuzendaritzen artean, horietako batzuek egitasmoko alderdi batzuk soilik aplikatu dituztelako.

Coleg Ffederal-eko kide izateko aukera izango dute galeserazko irakaskuntzan eta ikaskuntzan parte hartzen duten langileek eta ikasleek, eta ordezkaritza izango dute horren Kontseilu Nazionalean.

Cardiff-en, humanitateen alorreko zenbait irakasgaitan soilik izan du indarra galeserazko irakaskuntzak.

Cardiff-eko Unibertsitateko hizkuntza-egitasmoak seigarren urtea du jada, eta hori berriztatzen ari dira.

Horregatik, galesera hitz egiten duen edonork pentsa dezake hizkuntza-egitasmoaren ezarpena ez dela oso sendoa izan, ez eta aktiboa ere, unibertsitate osoan. Izan ere, alde batetik, benetako boteredun postuetan zeuden askok ez dute hizkuntza-trebetasun handirik erakutsi. Beste alde batetik, ikastetxe-buru batzuek ez dute elebitasuna sustatu nahi izan beren irakaskuntzan eta ikerketetan. Eta, beste alde batetik, batzuek uste dute hizkuntza-egitasmoak zerbitzu elebidunak eskaini behar dituela soilik, eta ez dute ulertzen irakaskuntzako eta ikerketako ingurune elebidun oso bat eraiki behar denik.

Erreparo horri aurre egiteko, nabarmentzekoak dira honako bi bilakera era hauek. Lehenik, kontuan hartu behar da gero eta aukera gehiago dituztela unibertsitateko langileek, bai eta beste batzuek ere, beren galesera-trebetasunak hobetzeko, hizkuntza-ikastaro trinkoak gauzatzeko aukera dutelako. Cardiff-i dagokionez, Galesera Eskolan gauzatzen dira ikastaro horiek. Horrek identitate propioa dauka, Canolfan Cymraeg i Oedolion Caerdydd a Bro Morgannwg-ek bezala, eta jarraian adieraziko dugu zer jarduera gauzatzen dituen. Bigarren elementua abian da oraindik; hazten ari da Y Coleg Ffederal. Esan dugun eran, Cardiff-en aurrerapenak bizkortzea espero dugu inbertsio estrategikoari eta finantzarioari esker, eta, horrela, gero eta irakasgai gehiago irakatsi ahal izatea galeseraz.

Gaur egun, unibertsitateko kide nagusi batzuek eta ikastetxe jakin batzuetako buruek erreparokoak jartzen dizkiote aurrerapen horri. Finantza-bermeak eskatzen dituzte; beldur dira galeseraz irakatsiko duten irakasleengan egindako gastua dela eta, ez ote den gastua murriztuko haiek gustukoago dituzten beste alderdi estrategiko batzuetan. Garbi dago zuzendari nagusi ugari oraindik ez daudela galeserazko estrategia nazional baten alde, ez filosofikoki, ez eta politikoki ere. Nire ustez, egoera hori ohikoa da Europa osoan. Izan ere, bertan, *prima facie* kasu bat dago irakaskuntza-, hedatze- eta argitaratze-hizkuntzak mugatzeko irakaskuntza-munduan. Kontrako aldean, horrelako joerei aurka egiteko ahaleginak egiten dituzte langile-elkarteek, hizkuntza-plangintzarako zenbait agentziak eta gai horrekin konprometitutako hainbat pertsonak, hizkuntza-aniztasunaren mesederako.

3. Helduei galesera irakasteko ikastetxea

Cardiff-eko Unibertsitatean, galesera-sustapenaren alderdi arrakastatsuenetakoa eta, beraz, “pozgarrienetakoa” da entzute oneko ‘Canolfan Cymraeg i Oedolion Caerdydd a Bro Morgannwg’ek egiten duen lana. Iaith Pawb-en politikaren helburua zen %5 handiagotzea galesera hitz egiteko gai ziren pertsonen kopurua (2011rako) eta, horretarako, helduen ikaskuntzako programa ezarri zen. Beraz, helduei galesera irakasteko sektorea berregituratu zen eta, 2006an, sei hizkuntza-zentro berri ezarri ziren. Honako unibertsitate hauetan jarri ziren zentro horiek: Cardiff-

ekoan, Glamorgan-ekoan, Swansea-koan, Aberystwyth-ekoan, Bangor-ekoan eta Gwent College-en. 2008an, 6,8 milioi £ jaso zituen sektoreak ikastaroen kalitatea hobetzeko, irakasle-kopurua handiagotzeko eta irakasleei prestakuntza osagarria emateko.

“Canolfan Cymraeg i Oedolion Caerdydd a Bro Morgannwg” Galesera Eskolako zentro profesional bereizia da; azken hori unibertsitateko irakaskuntza- eta ikerketa-zentro ofiziala da. Helduei galesera irakasteko Galeseko gainerako zentroak unitate askeak dira beren erakundeetan. Cardiff-eko zentroak 2.000 matrikulazio izan ohi ditu urteko, denbora osoko 21 langile ditu, orduka ordaindutako 46 tutore, eta urteko 2 milioi £-ko sarrerak biltzen ditu. Ikasle guztiak hamasei urtetik gorakoak dira, hainbat testuingurutatik datoz eta, eskuarki, honako hiru arrazoi hauen-gatik ikasten dute galesera: galeseraz ikasten duten seme-alabei edo bilo-bei laguntzeko nahia; bilakaera profesionala; eta identitatearen politikak eta psikologia, izan ere, heldu askok uste du galeseraz ez hitz egiteak ahuldu egiten duela horien identitate nazionala. Estyn-ek (hezkuntza eta prestakuntza ikuskatzeko Galeseko zerbitzua) aldizka ikuskatzen eta aztertzen du zentroa, eta lau erakunde-kide ditu azpieskualdean, hala nola, Cardiff-eko eta Vale of Glamorgan-eko udalak, Barry College eta Cardiff-eko Coleg Glan Hafren.

Bost lorpen-mailatan banatzen dira ikastaroak, hala nola, “Mynediad, Sylfaen, Canolradd, Uwch, Hyfedredd”. Galeseko Hezkuntzako Batzorde Bateratuak gainbegiratzen eta administratzen ditu ‘Defnyddio’r Gymraeg’ kanpo-azterketak. Ohikoa denez, gaitasun-maila bakoitzerako baliabide jakin batzuk daude, hala nola, ikasturteko testuliburu bat, CD bat, etxeko lanen liburu bat eta tutoreentzako gidaliburu bat. Hona hemen 2006ko datuak lorpen-mailei dagokienez: 678 Mynediad, 362 Sylfaen, 265 Canolradd, 74 Uwch, 5 Hyfedredd. Aurrerapen-maila hori ohikoa izaten da mota horretako hizkuntza-ikastaroetan. Maila gorenera heltzen direnek unibertsitate-mailako ikasketak egiten dituzte batzuetan: galesera ikasten jarrai dezakete, edo galesera erabil dezakete beste irakasgai batzuk ikasteko. Nire esperientziaren arabera, Wlpan ikastaroetan maila baxuan hasi ziren batzuek jarraitu egin dute filosofia-masterra edo filosofia-doktoretza gauzatu arte, nirekin edo nire saileko beste batzuekin. Eskuarki, 150 ikastaro inguru eskaintzen dira urtero. Zentroko kideek idazten dituzte ikastaroak, eta barra-barra saltzen dira merkataritza-produktu gisa. Gaur egun, eskuragarri daude ikastaroetako liburuak Wlpan ikastaroetarako (Mynediad a Sylfaen), Pellach (Canolradd), Uwch a Meistroli, Cefndir a Gloywi (Hyfedredd). Betiko Wlpan ikastaroak (Cyfunol: 2008 proiektuak), eta 2009rako Wlpan ikastaro berriak irakaskuntzako jardunbide egokiak dira gaur egun. Cardiff-eko eskualdeko hainbat tokitan dago zentroa, eta, horri esker, erantzuna ematen zaio lan-inguruneetan sortzen den eskariari. Hainbat lan-arlotan sor daiteke eskaria, hala nola, Biltzar Nazionalako langile zibilen aldetik, su-hiltzaileen

2004/05 ikasturtean, 1.086 ikaslek hitz egiten zuten galeseraz, hau da, ikasle guztien %6k; 2.676 irakasleen artetik, %1ak soilik uste zuen irakasgai guztiak edo batzuk galeseraz irakasteko gai zela. Hori muga larria da galeserazko egitasmo baten aplikaziorako, bai eta horrek izan ditzakeen asmoetarako ere.

Honako arlo hauei buruzkoak dira hizkuntza-egitasmoko atalak:

- **Kalitate-maila**
- **Egitasmoa sustatzea eta kontrolatzea**
- **Jendearekiko tratua**
 - **Cardiff-eko Unibertsitatearen irudi publikoa**
 - **Ikasleentzat galesera-eskaintza**
- **Galesera-trebetasunen estrategia**
 - **Kexuak eta hobekuntzak**

aldetik, autobus-gidarien aldetik, edo bankuen eta aseguruaren arloko langileen aldetik. Ikastaroen %40 unibertsitatean gauzatzen da, eta gainerako %60 (hau da, ikastaro gehienak), berriz, beste hainbat tokitan.

Curriculum bilakaerako aldaketei eta Informazio-Teknologien aurrerapenei buruzkoa da Wlpn Cyfunol ikastaro berria. On-line gauzatzen da ikastaroaren erdia, eta beste erdia, berriz, gelan. Materiala on-line aurkezten da, eta ariketak eta eztabaida sustatzen dira gelako ingurunean. Irakaskuntza-programak ikastaro trinkoak eta asteroko bilerak bateratzen ditu. Ikastaro horietako zazpi gauzatzen ari dira gaur egun, eta erakargarriak dira malgutasuna eta nork bere lana kontrolatzeko aukera eskaintzen dituztelako; ikasle bakoitzak erabaki dezake bere ikaskuntza-prozesuaren erritmoa, eta hori errepika dezake behar hainbat alditan. e-learning eta e-teaching erronka berriak dira tutoreentzat, bai eta e-tutore-tza ere (ikasleei aholkuak ematea eta jarraipena egitea horien aurrerapenera). Edonola ere, *Open University* edo unibertsitate irekia aitzindari izan zen urrutiko ikaskuntzari dagokionez 70eko hamarkadan, eta, bestalde, EBko eta nazioarteko esperientzia erabil daiteke erreferentzia gisa. Horrek abantaila garbi bat dakar, eta hori garbi ikusi da Kataluniako Unibertsitate Irekian, helduen hezkuntzarako euskal sisteman eta galeserazko ikastetxeetan, Sobhal Mor Ostai: berrikuntza horiei esker, kanpoan bizi den jendearengana hel gaitezke, eta munduan zehar barreiatuta dauden milaka ikasleek ikas dezakete urrutiko ikaskuntzaren bidez.

4. Medikuntza-ikasleen prestakuntza

Galesera-eskolak beste proiektu garrantzitsu bat ere gauzatu du, txikia bada ere: mende hasieratik, galeserarekiko kontzientzia sustatzeko eta hizkuntza-trebetasunak lantzeko ikastaroak eskaini dizkie unibertsitatean medikuntza ikasten dutenei. Hizkuntza-elementuaz gainera, osasuna zaintzearekin lotutako elementua gehitzen du horrek, eta, horrela, lanbide-sektore horrek zerbitzu hobea eman ahal izango dio osasun-komunitateari. Behar adinako funtsak daudenez proiektu horretarako, irakaskuntza zabal horrek bilakaera handia izan dezake, eta, era berean, trebakuntza eman diezaieke Galeseko osasun-zerbitzu nazionalako kideei. Horiek, galesera ikasteko sarrera-ikastaro bat egin ondoren, jarraitzeko asmoa izan dezakete, trebakuntza-maila altuagoetara heltzeko eta hizkuntza-trebetasunak eskuratzeko.

5. “Gloywi Iaith” ikastaro sabatikoak, lehen edo bigarren hezkuntzako irakasleek beren trebetasunak hobe ditzaten.

Lehen aipatutako ekimenaren antzekoa da hau, baina askoz ere funts gehiago jasotzen ditu estatuaren aldetik, eta nazio-mailan antolatzen da. Galesera-trebetasunak hobetu nahi dituzten irakasleentzako prestakun-

tzako barne-zerbitzua da, eta, horretarako, Galesera Eskolak antolatuta-ko barnetegietan parte har dezakete horiek.

2010eko irailerako, ikastaro horien hamabosgarren edizioa burutua izango da; batez beste, 9-12 ikaslek parte hartzen dute hamabi asteko ikastaro horietan. Galeseko Biltzarreko Gobernuak ordaintzen ditu irakaslea bere jatorrizko ikastetxean ordezkatzeak eragindako gastuak, bai eta horren mantenua, garraioa eta ikastaroko tasak ere. Ekimen horrek arrakasta handia izan du, eta beste irakasgai eta testuinguru batzuk estali ahal izango balitu, ziur bide onetik joango ginatkeela.

ONDORIOA

2010eko martxoaren 4an, galeserari buruzko neurri berri bat iragarri zuen Galeseko Biltzarreko Gobernuak, eta honako konpromiso hauek zehazten zituen horrek: 1) hizkuntza-egitasmoaren sistema ezartzea, hizkuntza-zerbitzua emateko nazioko estandar berriei jarraiki; 2) Galeseko hizkuntza-sailburu bat izendatzea; 3) Galesera Batzordea indargabetzea. Lege- eta hizkuntza-testuinguru berria ari da sortzen. Halere, txosten honetan azaldutako bilakaeren arabera, goi-mailako hezkuntzako zentroetan, galeseraren sustapena zatituta dago oraindik, idiosinkratikoa da, eta ez da egokia. Gobernuaren finantzazio eta baimen nazionalen bidez erantzuten zaio horri, baina erantzun horiek aldi behingoak eta epe motzerakoak izaten dira askotan, hezkuntza-plangintzan eta -politikan egiturazkoak eta integralak izan beharrean. Ondorioz, hemen adierazitako ekimenetako batzuk oraindik ez dira ohartu duten potentzial osoaz, eta ez dira onartuak izan unibertsitate-mailako hezkuntzaren eta prestakuntzaren eskaintza arruntean. Halere, etorkizun handiko seinaleak daude, batez ere norbanakoen eta *lobby* taldeen konpromisoari esker. Horiek aspaldi esan zuten gizarte elebidun bat ez dela derrigorrezko hezkuntzan soilik oinarritzen, aitzitik, goi-mailako hezkuntzan landu behar dela derrigorrez, lanbide-esparruan ere trebetasunak eskuratu nahi baditugu. Kontuan hartzen badugu zerbitzu elebidunak eskaintzen dituztela Galeseko hainbat lan-erakundek, bai eta Europako beste toki batzuetakoek ere, pentsa dezakegu gaitasunak areagotzeko garai batean gaudela, eta ez hizkuntza-eskubideen erregimen batean soilik; hizkuntza esparru gehiagotan erabiltzeko aukera gehiago ditugu. Idazlan honetan aztertu ditudan poz eta frustrazio asko estuki lotuta daude orain eraikitzen ari garen gaitasunak areagotzeko garai horrekin, baina sentimendu kontrajarri horiek askotan bizi izan dira Galeseko historian. Horregatik, denbora asko beharko da aipatutako politketan eta plangintzetan zehaztutako helburuak normalizat jotzeko, exotiko edo arraro ikusi beharrean, politiko eta unibertsitateetan erabakiak hartzen dituztenen buruetan, bai eta gurasoen, irakasleen eta, batez ere, ikasleen buruetan, azken horien ize- nean gauzatzen baitira bilakaera horiek guztiak.■

*Gaur egun,
unibertsitateko kide
nagusi batzuek eta
ikastetxe jakin
batzuetako buruek
erreparoak jartzen
dizkiote aurrerapen horri.
Finantza-bermeak
eskatzen dituzte; beldur
dira galeseraz irakatsiko
duten irakasleengan
egindako gastua dela eta,
ez ote den gastua
murriztuko haiek
gustukoago dituzten beste
alderdi estrategiko
batzuetan. Garbi dago
zuzendari nagusi ugari
oraindik ez daudela
galeserazko estrategia
nazional baten alde.*

Cardiff-eko Unibertsitatean, galesera-sustapenaren alderdi arrakastatsuenetakoa eta, beraz, "pozgarrienetakoa" da entzute oneko 'Canolfan Cymraeg i Oedolion Caerdydd a Bro Morgannwg'ek egiten duen lana.

Mende hasieratik, galeserarekiko kontzientzia sustatzeko eta hizkuntza-trebetasunak lantzeko ikastaroak eskaini dizkie unibertsitatean medikuntza ikasten dutenei.

ERREFERENTZIAK

- Baker, C. eta Jones, M.P.: "Welsh Language Education: A Strategy for Revitalization", in C. H. Williams, (arg.): *Language Revitalization: Policy and Planning in Wales*, 116-37. Cardiff: University of Wales Press, 2000, 116-37.
- Cardiff-eko Unibertsitatea: *Cardiff University's Welsh Language Scheme August 2004*, Cardiff: Cardiff-eko Unibertsitatea, 2004.
- Cardiffeko Unibertsitatea: *Welsh Language Provision Action Plan 2003-6*, Cardiff: Cardiff-eko Unibertsitatea, 2003.
- Datuen gaineko Lan Espezifikotarako Taldea: *Final Report of the Data Task and Finish Group*, Cardiff eta Carmarthen: Galeserazko goi-mailako hezkuntzako zentroa, 2009.
- Jones, Wyn, R.: *Methiant Prifysgolion Cymru / The Failure of the Universities of Wales*, Cardiff: Galesera Gaietarako Institutua, 2004.
- Galeseko Biltzarreko Gobernuak: *Welsh in Higher Education Institutions, 2007/08*. Cardiff: Estatistika Zuzendaritza, Galeseko Biltzarreko Gobernuak, 2009a.
- Galeseko Biltzarreko Gobernuak: *Welsh-medium Education Strategy*, Cardiff: Haur, Hezkuntza, Bizi Osorako Ikaskuntza eta Trebetasun Saila, Galeseko Biltzarreko Gobernuak, 2009b.
- Williams, C. H.: "Conclusion. Sound Language Planning is Holistic in Nature", in C. H. Williams (arg.): *Linguistic Minorities, Society and Territory*, 314-22, Clevedon, Avon: Multilingual Matters, 1991.
- Williams, C. H.: "Iaith Pawb: The Doctrine of Plenary Inclusion", *Contemporary Wales*, 17. lib., 1-27.

AIPAMENAK

Eskerrak eman nahi dizkiet Rachel Heath-Davies doktoreari, Gwen Rice-ri eta Dafydd Trsyntan doktoreari, beren jakinduria niri helarazteagatik.

OHARRAK

1. Ehuneko kalkulatzeko, galeseraz ikasten duten ikasleen kopurua zatitzen da galesera menderatzen duten ikasleen kopuruarekin.
2. Taulan 0 eta 5 arteko kopuruak agertzen direnean, * jartzen da zenbakiaren ordean. Horrela, ezin da ikasle konkreturik identifikatu taulako datuetan.
3. Trinity-ko eta Lampeter-eko ehuneko altuetan barne hartzen dira galesera ikasten ari diren ikasleak.